Ekonomia eta gizarte arloan, azken urteetan emandako aurrerapausuak kolokan jarri ditu krisi egoerak eta Europako ekonomiaren egituraren ahuleziak azaleratu dira. Hau dela eta *Europa 2020* sortu da, krisitik indartuta ateratzen eta Europa Batasuna ekonomia adimenduna bihurtzen laguntzeko estrategia. Zentzuzko hazkundea, jasangarria eta integratzailea dira bere lehentasunak.

Beraz, Europar fondoen hurrengo epealdia (2014-2020) *Europa 2020* estrategian oinarritu da eta 5 helburu nagusitan eragin nahi du:

1. 20-64 urte bitarteko biztanlegoaren %75a lanean egotea
2. I+Gn egiten den inbertsioa BPG-aren %3ra heltzea
3. Efizientzia energetikoa gehitu, negutegi efektua eragiten duten gasak murriztu eta energia berriztagarrien erabilera gehitzea ( *20-20-20 helburua*)
4. Eskola-porrotaren portzentaia %10era jaistea
5.

Pobrezia arriskuan dauden pertsonak 20 millioi gutxiago izatea.